

Ordizian, **bi mila eta zortziko urtarrilaren 31an** UDALBATZARRAK **OHIKO BILERA** egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

J. Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Alejandra Iturrioz Unzueta.	EAJ	taldea
Jon Txurruka Etxezarreta	EAJ	taldea
Miren Auzmendi Urkiola	EAJ	taldea
Iban Asenjo Garde	EA	taldea
Belén Maiza Urrestarazu	EA	taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	PSE-EE(PSOE)	taldea
Monica Marañon Basarte	PSE-EE (PSOE)	taldea
Jose J.Lopez Fernandez	PSE-EE (PSOE)	taldea
Maialen Galparsoro Odriozola	EB-Berdeak/Aralar	taldea
Mikel Leunda Senperena	EB-Berdeak/Aralar	taldea

BERTAN EZ DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Iñigo Manrique Cía	PP	taldea
--------------------	----	--------

Behin-behineko IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

INTERPRETARIA:

Garbiñe Mendizabal Mendizabal.



BERTARATZEAK ETA IRTEERAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.- 2007ko abenduaren 27an egindako Osoko Bilkurako akta onartu.
..... 3.orr
- 2.- Kutzako kontseilariak aukeratzeko udalerrien elkarketa.
..... 3.orr
- 3.- Oiangurengo obrak egiteko epea zabaldu.
..... 3.orr
- 4.- Tximista Plazako garajeen erabilera pribatiborako emakida administratiboaren esleipenerako oinarriak.
..... 3.orr
- 5.- Hainbat alorretako izendapenak: Zerbitzuak eta Agenda 21 alorra eta Obra eta Hirigintza Alorra, eta alor horietako eskumen eta izenen aldaketak.
..... 3.orr
- 6.- Buesa Construcciones S.A. enpresak tartejarritako 598/2007 zenbakia duen auzi-errekurtsoaren berri ematea.
..... 3.orr
- 7.- 2007ko aurrekontu luzatutakoan kreditu gehigarrien 1.espedientea.
..... 3.orr
- 8.- EBPNren plan estrategikoa onartzea, 2008-2011
..... 3.orr

AZKEN ORDUAN SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

GALDE-ERREGUAK

Gaztetxeari ixuna jarri ote zaion informazioa eskatuz.

..... pág.12



ORDUTEGIA:

HASIERA: 9,00 etan

AMAIERA: 9,30etan



Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez:

1.-2007ko abenduaren 20ko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2007ko abenduaren 20ko ohiko bileraren akta zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez da izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 6 (EAJ 3, EA 2, PSE-EE/PSOE 3,EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 1 (EAJ. Miren Auzmendi ez zelako bilkuran egon)

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako akta onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien bigarren puntuaren berri eman du:

2.- Kutxako kontseilariak aukeratzeko udalerrien elkarketa.

Proposamena

Kutxako kontseilariak aukeratzeko udalerrien elkarketa.

2008ko urtarrilaren 31ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren berri eman da, Kutxako kontseilariak izendatzeko, Urnieta, Zumaia, Orio eta Segurako udalerriak elkartzeko.



Aldi berean, Kutxako Hauteskunde Batzordearen agiriaren berri eman da, eta esan da, gainera, Zumaiaiko Udala ez dela elkartzeko eskubideaz baliatu eta, beraz, ez dela udalerrri hori sartuko elkarte horretan.

Hori dela eta, 2008ko otsailaren 22a baino lehen, Orio, Urnieta eta Segurako udalerriekin elkartzeko borondatea azaltzen duen erabakia hartu behar da.

Arrazoituta geratzen da presa.

Akordio proiektua

Kutxako gobernu-organoen izendapenean parte hartzeko Urnieta, Orio eta Segurako udalerriekin elkartzeko eskubideaz baliatzea da Ordiziako Udala.

2008ko urtarrilaren 31ko Osoko Bilkurako erabakia bertan behera uztea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkate jna.

Kutxako gobernu-organoen izendapenean parte hartzeko Urnieta, Zumaia, Orio eta Segurako udalerriekin elkartzeko eskubideaz baliatzea da Ordiziako Udala.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 6 (EAJ 4, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 2 (EA 2)

Abstentzioak: 3 (PSE-EE/PSOE 3)

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako akta onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien hirugarren puntuaren berri eman du:



3.- Oiangurengo obrak egiteko epea zabaldu.

Proposamena

2005eko otsailaren 28ko Udalbatza Plenoan Ikena 2001 SL enpresari esleitu zitzaion Oianguren aterpetxea eta dituen lur-sailak 40 urtez ustiatzeko emakida; hori guztia, esleipena arautzeko baldintza ekonomiko-administratibo eta teknikoen pleguaren arabera.

Erabaki horren xedapenatarako 2.atalean aurreikusitako obrak egiteko bi urteko epea ezarri zen eta beste urtebetez luzatzeko aukera, arrazoi sendorik balego eta esleipen-hartzailearenak ez ziren arrazoiengatik.

Gainera, proiektu horrek hainbat arazo eta eragozpen izan ditu, eta Arlo hori Antolatzeko Plan Berezia onartzeko aurrez egin beharreko prozesua oso luzea izan da, besteak beste, arrazoi hauengatik:

- “Oiangu Bizirik” plataformak proiektuaren aurkako duen jarrera.
- Arartekoak eskatutako informazioa eta proiektuaren bideragarritasunaren gainean Erakunde horrekin geroztik izan ditugun elkarrizketak.
- Planaren tramitazioan jendaurreko erakustaldiko epeak handitu egin dira.
- Alegazio-kopuru handia aurkeztu da, Korporazioak plan berezia behin betiko onartzeko erabakia atzeratu egin delarik.
- Plana formulatzerakoan Ingurumen-inpaktuaren Ikerketa aurkeztu beharra, aurretiako kontsulta eta guzti; horrez gain, obra-proiektuarentzat berarentzat onartu beharreko Ingurumen-inpaktuaren Ikerketa.
- Plan Berezia onartzeko prozesuan duden erakunde txostenak, horiek ere espedientearen luzera eta konplexutasunagatik luzatu dutena.

Arrazoi horiek denak ez dira esleipen-hartzaileari leporatzekoak.

Hori guztia ikusita eta obren exekuzio-maila ikusita, 2008ko urtarrilaren 23ko Plenorako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin

AKORDIO PROIEKTUA.

*** Zabaltzea Ikena 2001 SL enpresari (gaur egun Ikengu 05 SL) 2005eko otsailaren 28ko dekretu bidez emandako epea, 2008ko martxoaren 1etik aurrera kontatzen hasi eta beste bi urtez, hori guztia Oianguren aterpetxea eta dituen lur-sailetan aurreikusitako obrak egiteko.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:



Alkate jna.

Plan Bereziaren eta jarduera eta obra baimenaren tramitazioan jasandako eragozpen eta atzerapenen berri eman du, horietatik gehienak sustatzaile den enpresarenak ez direnak.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (EAJ 4, PSE-EE/PSOE 3, EA 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 2 (EB-Berdeak/Aralar 2)

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien laugarren berri eman du:

4.- Tximista Plazako garaieen erabilera pribatiborako emakida administratiboaren esleipenerako oinarriak.

Proposamena

Tximista Plazako lur-azpiko garaie itxien 10 urterako erabilera pribatiborako emakida administratiboaren esleipenaren berri eman da. Horretarako oinarriak 1986ko abenduaren 4ko Udalbatza Plenoan onartu ziren.

Geroago, kontratu horiek beste 10 urterako luzatu ziren.

Igaro den denbora ikusita, oinarri berriak onartu behar dira, baita garaie horien erabilera pribatiboaren esleipenerako deialdia ere.

Lege horren 22.4 artikulua araberak, osoko bilkurak Alkatearengan utz ditzake atribuzio horiek, artikulua horretako 2. atalean aipatutakoak izan ezik (a), b), c), d), e), f), g), h), i), l), eta p) paragrafoak) eta 3. atalean aipatutakoak.

2008ko urtarrilaren 18ko Plenorako Gaiari Batzordearen irizpena ikusita, honako hau onartzeko proposamena egiten da



AKORDIO PROIEKTUA.

- Tximista plazako garajeen erabilera pribatiboaren esleipenerako Oinarriak onartu.
- Esleipen horretarako deialdia egin.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkate jna.

Emakida zer den adierazi du eta azken oinarriak zertan aldatu diren.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ 4, PSE-EE/PSOE 3, EA 2, EB-Berdeak/Aralar)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien bosgarren berri eman du:

5.- Hainbat alorretako izendapenak: Zerbitzuak eta Agenda 21 alorra eta Obra eta Hirigintza Alorra, eta alor horietako eskumen eta izenen aldaketak.

Galparsoro anderea

Auzoetako delegazioa nola geratzen den galdetu du, jarraitu behar duen eta noren menpe.

Alkate jna.

Auzoetako gaiak ateratzen diren neurrian (batzuk obratakoak eta beste batzuk zerbitzutakoak) elkarrekin aztertuko dituzte Zerbitzutakoek eta Obratakoek.

Bizilagunekin egindako bileren aktak ez dira jasoko, baina dagokion delegazioetako aktetan islatuta geratuko dira.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien seigarren puntuaren berri eman du:

6.- Bruesa Construcciones S.A. enpresak tartearritako 598/2007 zenbakia duen auzi-errekurtsoaren berri ematea.

Jakinaren gainean geratu da udalbatza plenoa.



Ondoren, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du .

7.- 2007ko aurrekontu luzatutakoan kreditu gehigarrien 1.espedientea.

Proposamena

2007ko aurrekontu luzatutakoan kreditu gehigarrien 1.espedientea.

Ordiziako udalerrian arrisku-egoeran dauden gazte eta adingabekoentzat kaleko gizarte- eta hezkuntza-zerbitzua eta EHUko "Ordizia hiri hezitzailea" proiektua martxan jartzeko behararen berri eman da.

Gainera, aurrekontu luzapeneko egoeran gaudenez, ez dugu aurrekontu-krediturik.

Hori ikusita eta bi proiektuei aurrekontua atxikitzeko beharra ikusita eta 2008ko urtarrilaren 23ko Plenorako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako hau onartzeko proposamena egin da

AKORDIO PROIEKTUA.

2007ko aurrekontu luzatuan kreditu gehigarrien 1.espedientea onartu, guztira 80.880 €.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.



Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkate jna.

2007ko bukaeran sorturiko bi proiektu berri sustatzeko, eta 2008ko aurrekontua onartu gabe genuenez, kreditu gehigarritzko espediente hau onartzea proposatu da

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ 4, EA 2, PSE-EE/PSOE 3, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du .

8.- EBPnren plan estrategikoa onartzea, 2008-2011

Proposamena

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) euskararen zabalkunderako neurriak hartzeko tresna da. Eta neurri horiek guztiak helburu bakar batekin: euskaldunek euskaraz bizitzeko aukera izateko (maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean).

Euskara gizarteko arlo guztietara zabaltzeko, hiru lan esparru (edo helburu estrategiko) ezartzen ditu EBPNk:

1. Euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioak etenik izan ez dezan lortzea.
2. Euskararen erabilera gizarteko esparru guztietara zabaltzea.
3. Euskara bera, komunikazio-tresna den aldetik, lantzea eta aberastea.



Era berean, hiru helburu estrategiko horiek lortzeko, gizarte-arlo ezberdinetan zein neurri eta ekintza garatu behar diren zehazten ditu Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak.

2004-2007 EBPNren Plan Estrategikoa amaitu da eta 2008-2011koa osatzea dagokio orain, EBPN udalerrian egokitzeko urratsak garatzeko.

Hori horrela, honako hau proposatzen da

AKORDIO PROIEKTUA

Onartzea 2008-2011 EBPNren Plan Estrategikoa.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkate jna.

EBPN berria onartzea dela adierazi du Aklateak, hurrengo 4 urtetarako helburuekin.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ 4, EA 2, PSE-EE/PSOE 3, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du .

9.- Galde-eskaria.

Leunda jaunak galdetu du ea egia den atzo gauetz esan zitzaiona, alegia, kartelak eransteagatik isunik jarri ote zaion Gaztetxeari.

Alkate jaunak esan dio berak ez duela horren inongo berririk, baina astebete egon dela kanpoan.

Idazkariak esan du berak ez duela gogoratzen horrelako espediente zigortzailerik sinatu izanik.



Eta beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak bukatutzat eman du bilera eta nik, Behin-behineko Idazkariak, bertan esandakoa honako honetan jaso eta ziurtatu egin dut.

